



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA  
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza  
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental  
Dirección de Calidad Ambiental y Economía  
Circular

**Ebazpena, 2022ko apirilaren 22koa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Mungia udal-mugarteko SI-13 Jarduera Ekonomikoen Eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren irismen-dokumentua.**

## AURREKARIAK

2022ko otsailaren 7an, Mungiako Udalak eskabidea egin zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean, Mungiako SI-13 Jarduera Ekonomikoen Eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-azterketaren irismen-dokumentua eman zedin, bat etorrita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Honen emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Mungiako Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharak egiteko.

Behin txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatutakoan eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-agiria egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dioenaren arabera.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei (II.A eranskinean zerrendatuta), bai eta haien aldaketei ere, legezko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu baldin badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 8. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.



Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 18.1. artikuluan ezartzen du zer agiri erantsi behar zaizkion irismen-dokumentua hasteko eskaerari, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzeko eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukia buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukia buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukia buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ikusi dira: Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua; Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

#### **HONAKO HAU EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.**— Mungia udal-mugarterako SI-13 Jarduera Ekonomikoen Eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren irismen-agiria egitea (aurrerantzean, plana), ingurumen-ondoreetarako bakarrik eta honako baldintza hauetan:

##### **1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena.**

Mungia udalerrian indarrean dagoen hirigintza-plangintza Udal Plangintzako Arau Subsidiarioek osatzen dute, eta 1996ko ekainaren 24an onartu ziren behin betiko.

Planaren xedea SI-13 eremuaren antolamendu xehatua aldatzea da, zeinak indarrean dagoen udal hirigintza-plangintzan hiri-lurzoru industrialeko kalifikazioa duen. Eremu horretan Prado Transformados Metálicos enpresa zegoen. Enpresa horrek duela gutxi eten du jarduera. Planak hirigintza-antolamendu berria birdefinitu nahi du, eremua berritzeko eta industria-jarduera berriak ezartzeko.

Antolamenduaren xede den eremua Mungia herrigunean dago, 200 m ipar-ekialdera eta Bilbo-Mungia BI-631 autobiatik gertu, industria-eremuaren iparraldean baitago. Ekialdean eta mendebaldean, udalerriko herrigunera sartzeko bi bide daude; eremuaren hegoaldean, Trobika erreka igarotzen da, Butroe ibaiaren adarra.

Indarrean dauden arau subsidiarioen arabera, arearen azalera osoa 86.660,23 m<sup>2</sup> ingurukoa da. Esan bezala, hiri-lurzoru industrial finkatua da, eta Prado Transformados Metálicos enpresa zegoen bertan. Enpresaren pabiloiak eraitsi egin dira, eta hormigoizko orube bat gelditu da, eraikinik gabe. Eremuaren mendebaldeko muturrean zenbait erabileratarako eraikinak daude, hala nola supermerkatua, tailer mekanikoa eta etxebizitzak.

Hasierako dokumentu estrategikoak eremuaren antolamendu xehaturako zenbait aukera aztertzen ditu:

- 0. aukera, indarrean dagoen plangintza: Indarrean dagoen plangintzarekin jarraitzea, alegia. Aurreko hirigintza-errealitate bati erantzuten dio, area horretan batez ere Prado T.M. enpresaren jarduera ekonomikoa zegoenean. Egoera horrek eremua berritzea zailduko luke.
- 1. aukera, Planarekin proposatzen dena: neurri batean gaur egun idazten ari den Mungiako HAPOaren hasierako onespeneraren dokumentuarekin bat datorren planteamenduari erantzuten dio; aukera honetan, eutsi egiten zaie SI-13 eremuaren mendealdeko ertzean dauden eta erabilera duten eraikinei. Arearen gainerakoan (ia lurzoru guztiek osatua), hiri-egitura berri bat proposatzen da, hura berritu eta industria-jarduera berriak ezarri ahal izateko. Horretarako, honako hau zehaztuko da: sarbide eta lotura berriak, lehendik dauden jardueren integrazioa, arauzko zuzkiduren lagapena, eta abar.
- 2. aukera: area berritzea eta jarduera berriak ezartzea ere planteatzen da; oraingoan aurreko kasuan baino irismen handiagoa izango luke, gainera, mendealdeko ertzean dauden eraikinak arearen eraldaketaren barruan sartzen baitira, eta, ondorioz, antolamendutik kanpo geldituko lirateke eta nahitaez desagertu beharko lirateke. Aukera horrek kudeaketa-zailtasun handiak dakartza, honako hau egitea baitakar: lehendik dauden etxebizitzak birkokatu, errendimendu betean dauden jarduerak lekuz aldatu, kanpoko lurzoruak atxiki bide-sareak egokitzeko, eta abar.

## **2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak.**

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak (211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko Legean (abenduaren 9ko 10/2021 Legea) ezarritako helburuak eta printzipioak, bai eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legean (azaroaren 25eko 9/2021 Legea) zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Era berean, ingurumena babesteko, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa eta hiri-barreiadura saihestea, bai eta mugikortasun behartua ere, eta irisgarritasuna sustatzea, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren bitartez, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- e) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoratzeko eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- f) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- h) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Sustatzea energia aurrezteko, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenerazioa.

- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketa-erikiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak gutxitzea.

### 3. Eremu geografikoa eta ingurumen aldetik garrantzitsuak diren eremuak.

Mungiako 13. industria-sektoreak 86.660,23 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta herrigunetik 200 metro ipar-ekialdera dago gutxi gorabehera. Arestian aipatu bezala, honako hauek mugatzen dute unitatea:

- Iparraldean, BI-631 bideak.
- Hegoaldean, ekipamendu gisa katalogatutako lurzorua eta espazio libre batek.
- Mendebaldean, hiri-lurzu finkatuak, lurzu urbanizagarriak eta sektoretik kanpo utzitako lursailak.
- Ekialdean, Ormaetxe bideak, nekazaritza eta abeltzaintzako lurzu urbanizaezinak, landazabalak eta hiri-lurzu finkatuak.

Honako hauek dira haren ingurumen-ezaugarri nagusiak:

Planaren eremuan, edo hurbil, ez dago ez naturagune babesturik, ezta korridore ekologikorik ere. Halaber, ez dago ezein katalogotako eremuren baten barnean (ez EAEko naturagune garrantzitsuen katalogo irekiko eremuetan, ez LAG-Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako interes naturalistikoko eremuen zerrendakoetan), ez Europar Batasuneko intereseko habitatetan, ezta landare-espezie mehatxatuenetan ere. Era berean, ez dago Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroko elementurik.

Eremua Butroeko Unitate Hidrologikoaren gainean dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen eremuan. Eremutik oso hurbil, hegoaldean, Trobika erreka igarotzen da, Butroe ibaiaren adar bat.

Eremuaren hego-ekialdeko zatia Bizkaiko lurpeko ur Sinklinorioaren masaren gainean dago (ES017MSBT017.005), zehazki Getxo-Bergara Kuaternario Sektorearen gainean, zeina, aldi berean, interes hidrogeologikoko kokaleku batekin bat datorren. Gainazaleko materialek pitzadurak eragindako iragazkortasun txikia dute, eta txikia eta oso txikia da azpiko akuiferoa kutsatzeko arriskua.

Landarediari dagokionez, eremuaren zatirik handiena eremu antropizatuz osatua dago, landarerik gabe edo eraikuntzei lotutako landare erruderaekin eta flora exotiko inbaditzaileko espezie batzuekin. Prado T M enpresaren orubearen eta BI-631 autobaien artean, zuhaixka- eta belar-landarediko (belardi txiki bat) lurzu naturalen azalera txiki bat dago.

Fauna: inguru gizatiartuetan izan ohi dena da, baina ez da baztertzeko Schreiber muskerra edo iberiar baso-igela espezieak egotea, haien banaketa-eremua Bizkaiko lurralde osoa baita.

Halaber, hala Butroe ibaia nola Trobika erreka Bisoi Europarraren (*Mustela lutreola*) Interes Berezikoko Eremuaren parte dira, eta kudeaketa-plana onartuta dute.

Planaren xede den lurzati kokatuta dagoen ikuseremua nagusitasun antropogenikoko hiri-paisaia da. Paisaiaren balorazioa oso txikia da (EAEko paisaia berezien eta bikainen katalogo irekia. Aurreproiektua. Eusko Jaurlaritza. 2005).

Eraginpeko eremuaren barruan, ez da topatu interes arkitektoniko edo arkeologikoko elementurik, kultura-ondasun, babes berezi edo ertaineko ondasun edo balizko arkeologia-gune izendatuta dagoenik. Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak (BFA) espediente horri buruz egindako txostenaren

arabera, Prado Hermanos y Compañía SA edo Transformados metálicos SAL enpresaren eraikinak tokiko babesa emateko proposamena zuen. Lehen esan bezala, eraikin hori eraitsi egin da.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, adierazi behar da eremuaren ipar-mendebaldeko muturra Mungia (ES017-BIZ-BUT-03 kodea) izeneko uholde-arrisku handiko eremuan dagoela, Trobika errekarari lotuta. Eremu zehatz hori 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholdeen eraginpean dago, lehentasunezko fluxu-eremuan.

Bestalde, Planaren eremuan kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inventarioan jasotako bost lurzati daude, industria-jarduerari dagozkionak:

- Industrial. Kodea: 48069-00039. Dia supermerkatuen lurzatia
- Industrial. Kodea: 48069-00094. Multitalleres Lagun Onak SL
- Industrial. Kodea: 48069-00041. Indarlan Obras y Eventos
- Industrial. Kodea: 48069-00174.
- Industrial. 48069-00040 kodea: Prado T. M. enpresaren jarduerari dagokio, eta eremu horretan garatzen dira gehienbat Planaren antolamendu-proposamenak.

Zaratarri dagokionez, BI-631 errepidea eta BI-2121 errepidea dira Planaren eremuari eragiten dioten isurketa-foku nagusiak. SI-13 eremuaren zati bat Bizkaiko Foru Aldundiaren errepideetako zortasun akustikoko eremuaren barruan dago, kasu honetan BI-631 errepidearekin lotuta.

Sustatzaileak inpaktu akustikoari buruzko azterketa bat gehitu dio espedienteari, eta azterketa horren emaitzek erakusten dutenez, bai egungo egoeran, bai etorkizuneko egoeran, kalitate akustikoko helburuak gainditzen dira nagusiki industria-erabilera duten eremuetan; horrenbestez, neurri zuzentzaileak hartu beharko dira soinu-mailak murrizteko.

Planaren garapenak eragin ditzakeen ondorioak honako hauekin lotuta egongo dira: eremua eraikitze eta urbanizatzeko obrak egitea, horren ondorioz lur-mugimenduak, hondakinak sortzea (lehendik dauden zoladurak eraistean sortutakoak barne), makinen joan-etorriak, isurketak, zaratak eta abarrak sortuko baitira, eta horrek honako hau ekarriko du: natura-baliabideak galtzea (landaredia kentzea, lehentasunezkoa ez den habitatari eragitea), lur gaineko eta lurpeko ur eta lurzoruetarako isurketak eta inguruko herriarrei eragozpenak sortzea (emisio atmosferikoak eta akustikoak, etab). Prebenitu eta zuzentzeko neurriak hartu beharko dira lur-mugimenduetan kutsadura kontrolatzeko, Trobika errekarari isurketak gertatzea eragozteko.

Ustiapen-fasean, eremuko soinu-kalitatearekin zerikusia duten eraginak baliteke handiak izatea, eta soinu-mailak murrizteko neurri zuzentzaileak hartu beharko dira, beraz. Gainera, paisaiak baliteke eragin handiak izatea, eta, beraz, Plana garatzeko jarduerak paisaian integratzeko irizpideak zehaztuko dira.

Ez da aurkitu bateraezintasunik plangintza hierarkikoki nagusiarekiko.

#### **4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak.**

Planaren xede den eremuan ez da hauteman jarduketak egiteko eremu desegokirik, betiere aplikatu beharreko ingurumenari buruzko araudia betetzen bada, batik bat, arlo hauetan: sistema hidrologikoaren eta jabari publiko hidraulikoaren zaintza; naturaren kontserbazioa (intereseko landaredia eta fauna; espezie aloktono inbaditzaileak), hondakinen eta lurzoru kutsatuen kudeaketa eta kutsadura akustikoa.

#### **5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.**

Jarraian laburbiltzen da zein diren ingurumen-alderdi garrantzitsuenak izapide honetan jasotako txostenetan: eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta.

#### **Natura-ondareari dagokionez:**

Hasierako dokumentu estrategikoak sektorearen ingurune fisikoaren eta biotikoaren azterketa egokia egiten du, eta, besteak beste, Trobika erreka identifikatzen du, zeina eremuaren hegoaldetik baitoa eta Butroe ibaiaren adarra baita, bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremutzat. SI-13 sektorea lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzati batean dagoenez, ezinbestekotzat jotzen da ingurumen-azterketa estrategikoak lur-mugimenduetan kutsadura kontrolatzeko neurri espezifikoak ezartzea, Trobika erreka isurketarik ez dagoela bermatzeko.

Era berean, beharrezkotzat jotzen da flora exotiko inbaditzaileko espezieak (*Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii*) kontrolatzeko protokolo bat diseinatzea.

#### **Kalitate akustikoarekin lotuta:**

Jarduera-esparruaren zati handi bat Bizkaiko foru-errepideen zortasun-eremu akustikoaren eraginpean dago (irailaren 18ko 4523/2013 Foru Aginduen bidez onetsia).

Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 45. artikulua aplikatuz, SI-13 eremuan kalitate akustikoaren helburuak lortzen ez badira, aurreikusitako neurri zuzentzaileak aplikatuta ere, Mungiako Udalak, Planaren jarduketak garatu aurretik, eremua Babes Akustiko Bereziko Eremutzat jo beharko du, eta aldi berean onartu beharko du zonako plana. Plan horretan, kalitate akustikoko helburuak betetzeko eremuan ezarriko diren neurri aringarriak jasoko dira, baina neurri horiek ez dute inola ere eraginik izango BI-631 foru-errepidean.

Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 47. artikuluen arabera, kanpoaldea babesteko neurriak teknikoki edo ekonomikoki neurritz kanpokotzat jotzen direnean, erabaki hori behar bezala arrazoitu behar da.

Eraikinen barruko mailak betetzeari dagokionez, urriaren 19ko 1371/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoan eta Eraikuntzaren Kontrol Akustikoari buruzko 2016ko ekainaren 15eko Aginduan xedatutakoa aplikatuko da.

#### **Kultura-ondareari dagokionez:**

Eraginpeko eremuaren barruan, ez da topatu interes arkitektoniko edo arkeologikoko elementurik, kultura-ondasun, babes berezi edo ertaineko ondasun edo balizko arkeologia-gune izendatuta dagoenik. Hala ere, Prado Hermanos y Compañía SA edo Transformados metálicos SAL enpresaren eraikinak tokiko babeserako proposamena duela adierazten da. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, eraikin hori eraitsi egin da.

### **6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.**

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatuko diren apartatuek eskema metodologiko hau bete beharko dute:

#### **1. Proposatutako planaren deskribapena**

##### **1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak**

##### **1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena**

##### **1.3. Plangintza-alternatibak**

## *2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea*

### *2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena*

### *2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak*

## *3. Ingurumen-ondorioak.*

## *4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.*

## *5. Ingurumena zaintzeko programa*

## *6. Ingurumen-laburpena*

## *7. Laburpen ez-teknikoa.*

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

### **6.1. Planaren deskribapena.**

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

#### 6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak.

- a) Plana onartzeko edo hartzeko prozedura arautzen duen arau-esparrua zehaztuko da, eta organo sustatzailea eta behin betiko onespeneraren ardura duen organo substantiboa identifikatuko dira.
- b) Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, labur-labur jasoko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatzean, ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.
- c) Hierarkian plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian planaren gainetik dauden plan edo programen onespenera-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren.
- d) Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.
- e) Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- Mungiako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak.
- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).

- Mungiako eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa; bereziki uholde-arriskuko zonei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan bisoi europarra (Mustela lutreola) kudeatzeko plana.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 4523/2013 Foru Agindua, irailaren 18koa, Bizkaiko errepide foraletako zortasun akustikoko eremua behin betiko onesten duena.

#### 6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena.

- a) Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du azterketak, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak aintzat hartuta.
- b) Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketaren ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.  
  
Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko ditu Planak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean ahalik eta kalte gutxien sortzeko gidalerroak ezartzeko.
- c) Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Era horretan deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.
- d) Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta / edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.
- e) Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.
- f) Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketak guztien kokapena, pdf eta shape formatuetan.

#### 6.1.3. Plangintza-alternatibak.

- a) Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoak, garapen-denbora, kudeaketa,



antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba edo esku ez hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

- b) Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.
- c) Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.
- d) Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

## **6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea.**

Azterketak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren afekzio-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena –Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak izan ditzaketen gunek bakarrik hartuta.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

### **6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena.**

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

- a) Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.
- b) Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, korridore ekologikoak, eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, kalteberatasunari eta egungo presioei eta mehatxuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotu egin daitezkeen adieraziko da.

Illo horretan, zehatz-mehatz deskribatu beharko da hartutako antolamendu-aukerak zer landaredi eragingo dion, landare mota bakoitzaren okupazio-azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa adierazita. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

- c) Paisaia. Aztertuko da ea elementu interesgarriak dagoen pertzepzio-ikuspuntutik.

- d) Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kalteberatasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzorua kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Iturri kutsagarriak dagoen identifikatuko da, bai eta lurzoruak kutsa zezaketen jarduerak izan dituen lurzorurik dagoen, eta baliabide naturalen eskuragarritasuna aztertuko da, batez ere urarena.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

- e) Kultura-ondarea. Lehen adierazi den bezala, Planak eragindako eremuaren mendebaldeko mugaren ondoan Abendaño Errota izeneko balizko arkeologia-gunea dago; beraz, Planak Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65. artikuluan xedatutakoa bete beharko du.
- f) Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den gunerik dagoen eta eraginda gerta daitezkeen biztanleria, etab.

#### 6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak.

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko eremuan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketaren ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu horretan, Planak planteatzen dituen jarduketaren garapena baldintzatu dezaketen alderdiak jabari publiko hidraulikoaren babesarekin, uholde-arriskuarekin, lurzoru kutsatuen kudeaketarekin eta eremuaren kalitate akustikoarekin lotutakoak dira, eta alderdi horiek azterketan aztertuko dira.

#### **6.3. Proposatutako planaren ingurumen-eraginak.**

- a) Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen planean bildutako ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, azterlan bat egingo da jakiteko da zer interakzio dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterlanaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren efektu metatzaile eta sinergikoak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketa berrien ekintza konbinatuaren ondorioz sor daitezkeen metatze- eta sinergia-ondorioak.

Hala dagokionean, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Plana garatzeko jarduketan ondorioz Trobika errekan izan daitezkeen eragina ebaluatuko da bereziki, kontuan hartuta erreka hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 118/2006 Foru Dekretuaren aplikazio-eremuaren barruan dagoela (*118/2006 Foru Dekretua, Foru Aldundiarena, ekainaren 19koa; beraren bidez Bisoi Europarraren, Mustela lutreola Kudeaketa Plana onetsi da*).
- Era berean, Planak proposatutako antolamenduak eremuan dagoen landare-komunitateetan dituen ondorioen ezaugarriak zehaztu eta baloratu dira. Hala badagokio, intereseko habitatak edo intereseko aleak identifikatu dira.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertuko du Planak zer eragin izan ditzakeen uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko Plan Hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko eremuen erabilera-mugei dagokienez.
- Horrez gain, aztertu egingo da ea Plana bateragarria den Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planarekin, Mungia (ES017-BIZ-BUT-03 kodea) izeneko uholde-arrisku handiko eremuari dagokionez.
- Eremuaren zati bat interes hidrogeologikoko eremutzat hartzen denez, garapenak lurpeko ur-masetan izan dezakeen eragina aztertuko da.
- Horien artean, indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozkoak, kutsatuta egon daitezkeen kokalekuetan eta Trobika errekan arreta berezia jarrita.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa), aurreikusitako erabileren arabera.

Horri dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak espediente horri buruz egindako txostenean azaldutako gogoetei erantzun beharko die azterketak.

- Planaren garapenean aurreikusitako ekintzek paisaia duten eragina.

b) Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efectuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitezkeen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:
  - . Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.

- . Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitate-estandarrek edo muga-balioak gailu dezakeenik.
- . Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak edo ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilita, planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen eragin horien iragarpenean.

- c) Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.
- d) Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.
- e) Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

#### **6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.**

- a) Apartatu honetan deskribatuko da zer neurri aurreikusten diren azterketaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio nabarmenik sortuko, Planeko ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak eta natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.
- b) Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta azterlaneko 6.3 apartatuan identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:
  - Ingurune hidrikoa babesteari buruzko neurriak: plana garatzeko jarduketan ondorioz Trobika errekan eraginik ez dagoela bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak identifikatuko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak, behar besteko xehetasun-mailarekin; erreka hori interes bereziko eremutzat jotzen da bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*).
  - Hala badagokio, neurri prebentibo, zuzentzaile edo konpentsatzaile espezifikoak proposatu beharko dira, intereseko landarediaren gaineko eragina saihesteko edo arintzeko eta natura-ondarearen galera garbirik ez dagoela ziurtatzeko (zero balantzea edo, bestela, aurreikusitako lehengoratzekin, positiboa).
  - Plana garatzeko jarduketak paisaia integratzeko irizpideak zehaztuko dira, erabiliko diren espezieak eta birlandatuko diren gainazalak finkatuz. Industria-eremuko berdeguneetan eta espazio libreetan, lhobek argitaratutako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua* kontuan hartzea gomendatzen da.
  - Planaren esparruan flora exotiko inbaditzaileko espezieak (*Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii* edo beste batzuk) kontrolatzeko protokoloa prestatu beharko da.
  - Oro har, bermatu beharko da betetzen dela EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean (2015-2021) ezarritakoa. Hartara, saihestu beharko dira, bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuena, eta sustatuko da, ahal denean, horiek lehengoratzea, biziberritzea eta hobetzea.

- Uholde-arriskuari dagokionez, Planak indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia bete beharko du, uholde-arriskuko eremuko erabileren mugei dagokienez, bai eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren araudia ere (E.2 apartatua).
  - Kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.
  - Jarduketa-eremuaren zati handi bati BI-631 foru-errepidearen zortasun akustikoko eremuak eragiten diola kontuan hartuta, kontuan hartuko dira Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidean egindako txostenean jasotako gogoetak.
  - Planaren eremuan dauden lurzoru kutsatuak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legea eta 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena.
  - Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.
  - Azkenik, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenari jarraikiz, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketan egon daitekeen eragina arindu eta hartara egokitze neurriak. Xede horrekin, lhobek egindako honako gidaliburu metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-aldaketara egokitze udal-programak egiteko gidaliburua* (Udalsarea 21 lan-koaderno) eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitze*.
- c) Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.
- d) Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.
- e) Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

## **6.5. Ingurumena zaintzeko programa.**

- a) Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzeko jomuga izan beharko dute:
- Gainbegiratzea ea behar bezala ezartzen diren planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak.
  - Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
  - Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
  - Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.
- b) Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

- c) Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterketan, bai eta kasu bakoitzean datuak biltzeko zer proposamen zehatz egiten den ere, aldizkakotasunari eta erabiliko diren metodoei dagokienez.

#### **6.6. Ingurumen-laburpena.**

- a) Deskribatuko da zelan txertatu planean ingurumen-alderdiak. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.
- b) Aztertu egingo da zenbaterainoko arriskua dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta beharrezko argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero oso arrisku txikia dagoela efektu esanguratsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

#### **6.7. Laburpen ez-teknikoa.**

- a) Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.
- b) Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

### **7. Jendaurreko informazioko eta kontsultarako izapideak.**

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Ihobe.
- Kultura Zuzendaritza. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusia. Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia.
- Ekologistak Martxan Bizkaia Elkarte.
- Eguzki (Eguzkizaleak Aisialdirako Elkarte).

## **8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.**

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, eta barnean hartuko ditu plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion\\_eae/eu\\_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf)

Bigarrenena. - Ebazpen honen edukia Mungiako Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 22 apirilaren 2022.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaria

Javier Aguirre Orcajo